

# Aitor Garin

## "HIRU HITZ"

Oroitzen dut Altza kaskoko Frontoi zaharra, hamar aldiz margotua, eta hamaika aldiz "margotua", Eliza zaharra; gure herriko agureak frontoiaren harrizko eserleku hotz horietan, beraien artean mintzatzen, aurrean dituzten ume koxkor horien pilotakadak begi zorrotzez jarraitzen dutelarik. Oroitzen dut bai, Martillunen izandako koadrilako lagunarteko afariak, eta kantak, eta txisteak, eta irrintziak,..Oroitzen dut bai, Herri Ametsa Ikastolaren lehenengo pausuak ematen ari zirela, bertako jangelan zegoen zarata eta eskandalua, dozenaka ume Altzatar goseti nire inguruan builaka... Oroitzen ditut kideen arteko bilerak, eta diskusioak, eta kezkak, eta ilusioak, eta zalantzak, eta erabakiak,... Hemezortzi urte ditut.

Oroitzen dut Herrerako Plaza, eguzkiaren lehenengo distirekin eta gure Altzako baserrietako etxeoandreak bertan beren barazki eta frutak salmentarako prestatzen.. Oroitzen dut bai, "Herrera"ko "Zubi-pe" tabernan, gure koadrila sartzen zenean, entzuten genuen "Ongi Etorri" bero eta atsegina... Oroitzen dut bai, trenaren zarata gau ilun eta ixil horietan, nola datorren, nola hurbiltzen den, nola doan... Oroitzen dut bai, Oletara doan aldaparen bazter batean berdez jantzita dauden sardin zahar batzuk nola begiratzen gaituzten beraien albotik pasatzerakoan, mesfidati... Oroitzen dut bai, nire koa

drilarekin Oiartzungo haranean zehar egindako ibilaldiak, mendi irteerak eta jaiak,... Hemezortzi urte ditut.

Oroitzen ditut nire herriko lezeak, mendeetan euskal izaeraren gotorleku, akerraren eremua, sorginen etxea, akelarre ero eta alaien lekuko... oroitzen dut bai, nire herriko baserrietan bizilagunen arteko bisitaldiak, hizketaldiak,.. dena mendeen gauean galtzen den euskaldunon hizkuntza horretan.. oroitzen ditut bai, malda behera dagoen etxetxo txiki hori, eta barruan beti dagoen bibotedun sardin zahar hori, beti erne, beti zai, beti hor, beti "Alto!",... oroitzen dut bai, Altzako Los Boscoseko parrokia, eta bertan izandako bilkurak, eta elkarteak, eta Eliz-ondo taberna,... Hemezortzi urte ditut.

Ume txiki bat naiz. Beste egunean, Santa Barbarako plazan jolasten nintzela, ezezagun gazte bat hurbildu zait eta paper bat oparitu dit. Mapa zahar bat da, irla batena. Hitzak ez ditut ondo ulertzen, baina izen batzuk ezezagunak egiten zaizkit: Derry, Belfast, Tyrone, Dublin,.. irla bat, herri bat daukat nire begien aurrean. Nire logelako paretan jarri dut, eta urteetan begiratuko dut nire ohearen eskubian. Ume txiki bat naiz. Aurreko egunetan zerbait gertatu da Altzan, baina ez dakit oso ondo zer. Nire etxeko balkoian nago. Gazte asko ikusten ditut korrika. Mendi aldera doaz, ihes egiten. Polizi asko ikusten ditut, korrika, gazteen atzetik, mendi aldera ere. Bizilagun baten ahotsa entzuten dut: "por ahí, se han metido por ahí". Jada ez dut inor ikusten, mendian sartu dira, baina oihuak entzuten ditut, eta lamentoak,... mina sentitzen dut, beldurra dut. Gazte koxkor bat naiz. Nire portalaren aldamenean gazte leku bat dago. Larunbata arratsaldeak hor pasatzen ditut. Xake eta damak jolasten irakatsi didate. Batzuk euskaraz mintzatzen dute, eta nik ez diet ulertzen. Gaur kalean pintada batzuk ikusi ditut: "Lemoiz gelditu!". Gazte bat naiz. Ikuskizun polita ikusi dut Arri-berriko plazan. Jende asko bildu da eta parodia antzeko bat izan da. Batzuk mozorrotuak zeuden. Musika zegoen, giro alai. Gustora egon naiz, ondo pasa dut. Amaieran kolorezko paper bat eman didate: "OTAN ez. Euskal Herria bai!". Arri-berriko pareta batean esaldi berbera margotu dute. Urteetan hor jarraituko du. Gazte bat naiz. Autobusean nintzela, Altzako Mirakruz-gaineko geltokian, eskale bat agertu da. Baimena eskatu du barrutik pasatzeko borondate oneko laguntza ttipi bat eskatzen. Gidariak pasatzen utzi dio. Altzako autobuseko gidari bizardun hori ez dut gehiago ikusiko.

Nire gazteriaren azken urteetan nago. Altzako beste jendearekin euskaraz hitz egiten dut. Legeetaz zerbait ikasi dut, eta zerbait ikusi. Gaur, lagun bati bisita egin diot. Hiru ordu laurden aritu gara hizketan. Aurpegi alai du,

gazte itxura, eta zenbait broma egin ditu. Hizketaldia amaituta, agurtu gara. Kanpora atera naiz eta Altzako bidea hartu dut. Nire laguna, kabinatik atera eta pasillo batean sartu da, ziegarako bidean. Hogeitahamaika urte ditut.

---

*R e s e ñ a — A través de las vivencias del propio autor, el texto es un recorrido por el Altza que la juventud ha conocido en los últimos años: el final del Altza rural, la cuadrilla, las salidas al monte, el movimiento social y político en los años de la transición,...; momentos alegres y momentos tristes vistos con los ojos críticos de quien dice adiós al joven que fue ayer.*